

Bonboa biraka dabil eta zenbaki zaridunak irteten ari dira. Oraingo honetan zazpi izan dira baina biraka jarraitzen du beste zenbaki batzuen bila. Estatuak loteriak antolatzen ditu, batzuk zorionerako eta besteak zorigaitzean.

Zorionekoak Espainian zehar banatzen dute, zorigaitzekoa Euskal Herrira bereziki mugatu daure. Azken honetan Algorta-Berangoko zazpi laguni toka jaku. Martitzenetik eguaztenerako gabea izan zan amets gaiztoaren hasiera, gure etxeetan bortizki sartu ziren kaputxadun, ametrailadun animalia arrotzak. Zeren bila zihoazen jakin barik txoko guztiak arakatu zituzten ehundaka objektu baliogabeak eskuratuz, gure eta familiaren gauza mordoa apurtuz, etxe atariak apurtuz eta tirokatuz. Hortik aurrera izan ziren mehatxuak, kolpeak, oihuak, hiru gaba luzez, oso luzez, gure lasaitasuna eta bizitzak bortzatzuz.

Egoera politikoak eragindako atxiloketa politikoak izan dira, leporatzen inongo oinarri edo funtzik gabe aurrera eramanez espainiar estatuan euren eraginkortasuna saltzeko. Euskal Herriaren parte handi batek ez baitie sinesten. Ezin da sinestu gezur hutsa delako.

Inkomunikazioak asko bakartzen zaitu ahuldu eta aldi berean Audientziako ziegetan bakarrik ez geundela konturatu eta indar berritzen hasi ginen. Hormen bestaldeko kolpe moduko seinaleak ailegaraziz gure batasuna indartuz. Ordurarte herriko ezagunak ginenak, kolpe batez betiko lagun bihurturik. Kartzela zigorra erabakita zegoen txontxongilo aurpegi zapal harroputzaren aurretik pasatu baino lehen. Kartxelarako bidean "Txikia" abestia ezin ozenago abestu genuen, bakoitza bere lekutik baina denak batera. Denak bat garelako, gaur egun.

Orain kartzelan gaude, indarberriturik, animotsu, ze erremedio!! Aurrera begiratu behar da eta aurrean dena daukagu irabazteko benetan!

kartzelan pausu sendoz sartu gara, errespetuz eta errespetatuak. Bestalde, kanpotik jasotako elkartasuna hunkitzen gaitu, horregatik eragindako malkoek sufrimendua ito daure. Kaleko indarrak ailegarazi dizkiguzue eta maitasuna bialduz, gizatasunaren balioa handituz. Oso harro gaude gure herriaz, gure herria zuek danak zaretelako. Kanean, etxean, lanean, baina elkaturik sentitu zaituztegulako, la oxtia zarie, gora zuek!

Bukatzeko eskerrak eman gure lagun kuadrila, familia eta abokatuei.

Zuek batera egotea guri indarra emotea da, herriarengatik oso babestuak sentitu gara, borroka hau ez da bukatzen baina dena daukagu irabazteko.

Mila muxu iraultzaile zuei danori, zuek barik ez gara ezer. Ekin lanari! Zaindu zuen artean bizitza ederregia delako makurturik emoteko.

Gora herria!! Gora bihotzak!!

Lander eta Aner